EBAZPENA, 2025EKO MAIATZAREN 23KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAREN KUDEAKETA ZUZENDARIARENA, 2025/26 IKASTURTERAKO, 2025EKO ABUZTUAREN 31N 59 ETA 60 URTE EDO GEHIAGO DITUZTEN LAN-LEGEPEKO IRAKASLE ETA HEZITZAILE FINKOEN ESKOLA-ORDUAK/ARRETA ZUZENEKO ORDUAK ADINAGATIKO MURRIZTEKO BEHIN BETIKO DEIALDIA EBAZTEN DUENA.

RESOLUCIÓN DE 23 DE MAYO DE 2025, DEL DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POR LA QUE SE RESUELVE, CON CARÁCTER DEFINITIVO, LA CONVOCATORIA DE REDUCCIÓN DE HORAS LECTIVAS/ATENCIÓN DIRECTA POR RAZÓN DE EDAD PARA EL PERSONAL LABORAL DOCENTE FIJO Y EDUCATIVO FIJO DE 59 Y 60 O MÁS AÑOS DE EDAD A FECHA DE 31 DE AGOSTO DE 2025, PARA EL CURSO 2025/26.

2025 martxoaren 26ko Hezkuntza Sailaren Langilearen Kudeaketa zuzendariaren ebazpenaren bidez, 2025/2026 ikasturterako adinaren arrazoiarengatik irakastorduak/ zuzeneko arretako orduak murrizteko prozedura zehaztu zen.

Mediante Resolución de 26 de marzo, del Director de Gestión de Personal del Departamento de Educación, se estableció el procedimiento de solicitud de reducción de horas lectivas/horas de atención directa por razón de edad, para el curso 2025/2026.

Aipatutako ebazpenaren bigarren eta hirugarren atalen arabera, hauek dira eskola-orduen/arreta zuzeneko orduen murrizketa emateko baldintzak:

- Lan-kontratudun irakasle eta hezitzaile finkoak, mugagabe ez-finkoak edo lanpostu hutsetan dauden bitartekoak eta ordezkoak (hezkuntza-laguntzako espezialistak, fisioterapeutak, zeinu-mintzairaren interpretea eta terapeuta okupazionalak), 2025eko abuztuaren 31n 59 urte dituztenak (60 urte bete gabe).
- Lan-kontratudun irakasle eta hezitzaile finkoak, mugagabe ez-finkoak edo lanpostu hutsetan dauden bitartekoak eta ordezkoak (hezkuntza-laguntzako espezialistak, fisioterapeutak, zeinu-mintzairaren interpretea eta terapeuta okupazionalak), 2025eko abuztuaren 31n 60 urte edo gehiago badituzte eta erretiro partziala hartzeko baldintzak betetzen ez badituzte.
- 2025/26 ikasturterako, irakasle finkoek edo aldi baterakoek gehieneko eskola-

Conforme a los apartados segundo y tercero de la citada resolución, los requisitos para la concesión de la reducción horas lectivas/horas de atención directa son los siguientes:

- Personal laboral docente y educativo indefinido e interino en vacante o en sustitución (Especialistas de Apoyo Educativo, Fisioterapeutas, Intérprete de Lenguaje de Signos y Terapeutas Ocupacionales) que tenga 59 años de edad (no cumplidos 60 años) a fecha 31 de agosto de 2025.
- Personal laboral docente y educativo indefinido e interino en vacante o en sustitución (Especialistas de Apoyo Educativo, Fisioterapeutas, Intérprete de Lenguaje de Signos y Terapeutas Ocupacionales) que tenga 60 o más años cumplidos a fecha 31 de agosto de 2025, y no reúna los requisitos para acceder a la jubilación parcial.
- Que para el curso 2025/26 el personal docente fijo o temporal tenga asignada la



Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T6XXY-P72W
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** UNAI NIETO MARIJUAN | 2025/05/22 11:33:16

lanaldia esleituta izatea (hau da, apartatu honetako c eta d betekizunak betetzea), eta hezkuntza-langile finkoek eta aldi baterakoek (hezkuntza-laguntzako espezialistak, fisioterapeutak, zeinuhizkuntzako interpreteak eta terapeuta okupazionalak) zuzeneko arretako gehieneko orduak esleituta izatea. Hezkuntza-laguntzako espezialisten kasuan, zuzeneko arretako 30 ordura iristen ez direnen eskaerak ere onartuko dira, baina heren bateko murrizketa 30 orduko gehieneko zuzeneko arretaren gainean kalkulatuko da, hau da, 20 orduko zuzeneko arreta eman beharko dute.

- Kontratu hori 2025/26 ikasturte osorako ziurtatuta edukitzea. Ordezkapen-kontratuen kasuan, kontratuaren arrazoiak gutxienez 2026ko abuztuaren 31ra arte iraun behar du.

- Erretiro partzialeko egoeran ez daudenak edo 2025/26 ikasturtean erretiro partziala hartuko ez dutenak.

- Deialdi espezifiko bidez zerbitzu-eginkizunik edo lanaldi-murrizketarik ez izatea 2025/26 ikasturterako.

- 2025/26 ikasturtean beste jarduera batzuetan aritzeagatik (proiektuak, EGA/AKA, jantokia, zuzendaritza-karguak ...) eta osasun-arrazoiengatik eskola-orduen murrizketarik ez izatea.

- Bigarren jarduera batean zerbitzurik ez ematea.

- *Ezin izatea erretiro arrunta eskuratu egungo kotizazio-oinarriak kontuan hartuta lor lezakeen gehieneko pentsioarekin, Gizarte Segurantzaren araudiaren arabera.*

jornada lectiva máxima (entendiéndose por tal el cumplimiento de los requisitos c y d de este apartado), y el personal educativo fijo y temporal (Especialistas de Apoyo Educativo, Fisioterapeutas, Intérprete de Lenguaje de Signos y Terapeutas Ocupacionales) tenga asignada el máximo de horas de atención directa. En el caso del personal Especialista de Apoyo Educativo, se aceptará también las solicitudes de quienes no alcancen las 30 horas de atención directa, pero la reducción de un tercio se calculará sobre la atención directa máxima de 30 horas, es decir, deberán realizar una atención directa de 20 horas.

- Que tengan asegurado dicho contrato para el curso 2025/26 completo. En el caso de los contratos de sustitución, la causa del contrato debe mantenerse como mínimo hasta el 31 de agosto de 2026.

- Que no estén en situación de jubilación parcial o que no vayan a acogerse a la misma durante el curso escolar 2025/26.

- Que no tengan concedida una comisión de servicios por convocatoria específica ni una reducción de jornada para el curso 2025/26.

- Que no tengan reducción de horas lectivas por dedicación a otras actividades (proyectos, EGA/AKA, comedor, cargos directivos...) ni por razones de salud, para el curso escolar 2025/26.

- Que no presten servicios en una segunda actividad.

- *Que no pueda acceder a la jubilación ordinaria con la pensión máxima que pudiera alcanzar teniendo en cuenta sus actuales bases de cotización conforme a la normativa de Seguridad Social.*

- Murrizketa-orduak ikastetxeko zuzendaritzaren eskura jartzea, betiere ikastetxean eman beharreko orduak izanik.

- Que las horas de reducción se pongan a disposición de la dirección del centro, siendo, en todo caso, horas de permanencia en el centro.

2025/26 ikasturterako irakastorduen/zuzeneko arretaren murrizketa hori baimentzeko, baldintzak ikasturte osoan bete beharko dira (2025eko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 31ra).

La autorización de esta reducción de horas lectivas/atención directa para el curso 2025/26 quedará condicionada al cumplimiento de los requisitos durante todo el curso académico (de 1 de septiembre 2025 a 31 de agosto de 2026).

2025eko maiatzaren 8ko behin-behineko ebazpenean ezarri zen, deialdi honen deialdia egiten duen 2025eko martxoaren 26ko Ebazpenean xedatutakoaren arabera, I., II. eta III. eranskinetan argitaratutako behin-behineko zerrenden aurka interesdunek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dutela 2025eko maiatzaren 9tik maiatzaren 16ra arte, biak barne. Behin-behineko ebazpen honen aurkako erreklamazioak Hezigunearen ingurunean horretarako prestatutako formularioaren bidez egingo dira.

En la resolución provisional de 08 de mayo de 2025 se estableció que, con arreglo a lo dispuesto en la Resolución de 26 de marzo de 2025 por la que se convoca la presente convocatoria, contra los listados provisionales publicados en los Anexos I, II y III los interesados podrán presentar reclamación desde el día 9 de mayo hasta el día 16 de mayo de 2025, ambos incluidos. Tales reclamaciones contra la presente Resolución provisional se realizarán mediante el formulario habilitado para ello en el entorno de Hezigunea.

Era berean, ebazpen horretan, ezesteko arrazoia konpon zezaketen interesdunei eskatu zitzaien zuzendu zitzatela edo nahitaezko dokumentuak aurkez zitzatela Hezigunearen inguruan horretarako prestatutako formularioaren bidez.

Asimismo, en dicha resolución se requirió a los interesados cuyo motivo de desestimación fuese subsanable para que procedieran a subsanar o aportar los documentos preceptivos a través del formulario habilitado a tal fin en el entorno de Hezigunea.

Erreklamazioak jaso, aztertu eta ebatzi dira, eta zuzenketak eskatutakoaren arabera egin dira.

Recibidas las reclamaciones, que han sido examinadas y resueltas, y practicadas las subsanaciones según lo requerido.

Kontuan hartuta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoa;

Considerando lo dispuesto en el artículo 10 del Decreto 71/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación;

EBAZTEN DUT

RESUELVO

LEHENENGOA.- Abuztuaren 31n 59 urte (60 urte bete gabe) dituzten eskatzaileei buruzko ebazpen honen I. eranskinean agertzen diren pertsonei irakastorduak murriztea 2025/2026 ikasturterako: astean bi eskola-ordu

PRIMERO.- Conceder a las personas que figuran en el anexo I de la presente resolución, relativo a los solicitantes que tengan 59 años de edad (no cumplidos 60 años) a fecha de 31 de agosto, una reducción de horas lectivas para el

irakasleentzat eta astean bi zuzeneko arreta-ordu hezitzaileentzat.

BIGARRENA.- Ebazpen honen II. eranskinean agertzen diren pertsonei, abuztuaren 31n 60 urte edo gehiago beteta dituzten eskatzaileei buruzkoa, irakastorduen murrizketa bat ematea 2025/2026 ikasturterako. Murrizketa hori irakastorduen herena izango da irakasleentzat, eta zuzeneko arretako orduen herena hezkuntzako langileentzat (Hezkuntza-Laguntzako Espezialistak, Fisioterapeutak, Zeinu-hizkuntzako Interpreteak eta Terapeuta Okupazionalak).

HIRUGARRENA.- Ikasturtea hasteko unean, I. eta II. eranskinetan agertzen diren pertsonek, baldin eta 2025/2026 ikasturterako irakastorduak edo zuzeneko arretako orduak murrizten bazaizkie, ebazpen honetako lehenengo eta bigarren ataletan adierazitakoaren arabera, ikastetxeko zuzendaritzaren aurrean egiaztatu beharko dute deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela.

Lan-kontratudun irakasle eta hezitzaileen hitzarmen kolektibo berriaren ondorioz, zeinaren aurreakordioa 2024ko abenduaren 19an sinatu zen, 2025-2026 ikasturterako zuzeneko arretako orduak astean 25 izango dira.

LAUGARRENA.- Ebazpen honen III. eranskinean azaltzen diren pertsonen irakastorduak eta zuzeneko arretako orduak murrizteko eskaerak ezestea.

ERREKURTSOA

Lan-arloko Jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 69. eta 115. artikuluetan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka demanda aurkeztu ahal izango da

curso 2025/2026 consistente en dos horas lectivas semanales para el personal docente y en dos horas de atención directa semanales para el personal educativo.

SEGUNDO.- Conceder a las personas que figuran en el Anexo II de la presente resolución, relativo a los solicitantes que tengan 60 o más años de edad cumplidos a fecha de 31 de agosto, una reducción de horas lectivas para el curso 2025/2026 consistente en un tercio de las horas lectivas para el personal docente y en un tercio de las horas de atención directa para el personal educativo (Especialistas de Apoyo Educativo, Fisioterapeutas, Intérpretes de Lenguaje de Signos y Terapeutas Ocupacionales).

TERCERO.- En el momento del comienzo del curso escolar, las personas que figuran en los Anexos I y II a las que se concede la reducción de horas lectivas u horas de atención directa para el curso 2025/2026, en los términos expuestos en los resuelvos primero y segundo, deberán acreditar ante la Dirección del Centro el cumplimiento de la totalidad de los requisitos fijados en la convocatoria.

A consecuencia del nuevo Convenio Colectivo del Personal laboral docente y educativo, cuyo preacuerdo se firmó el 19 de diciembre de 2024, las horas de atención directa serán de 25 horas semanales para el curso 2025-2026.

CUARTO.- Desestimar las solicitudes de reducción de horas lectivas y horas de atención directa de las personas que figuran en el Anexo III de la presente resolución.

RECURSO

Con arreglo a lo dispuesto en los artículos 69 y 115 de la Ley 36/2011, de 10 de octubre, reguladora de la Jurisdicción Social, contra la

dagokion lan-arloko epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

presente resolución podrá interponerse demanda ante el Juzgado de lo Social que corresponda en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la fecha de su publicación.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren datan
En Vitoria-Gasteiz, a fecha de firma

EL DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL
LANGILEAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

Fdo. UNAI NIETO MARIJUAN



Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ